BERRIZKO UDALAREN INTERPRETAZIO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ESPEDIENTEAREN EZAUGARRI TEKNIKOEN AGIRIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea izango da Berrizko udalean ahozko interpretazio zerbitzua emango duen enpresa hautatzea. Interpretazio lanak egingo dira batik bat hizkuntza ofizialen artean (euskararen eta gaztelaniaren artean, alegia), baina beste hizkuntzak ere egon daitezke, nahiz sorburu nahiz xede hizkuntza gisa.

Urtean zehar, honako interpretazio-saioak burutu beharko ditu: ohiko osoko bilkura, gehi sor daitezkeen osoko bilkura bereziak eta informazio-batzorde bilerak .
Udalak ahalik eta aurrerapen handienarekin jakinaraziko dio enpresari bileren data. Ohiko osoko bilkuren kasuan, beranduenez 48 ordu lehenago abisatu beharko du erakundeak; eta osoko bilkura berezien eta beste organoen bileren kasuan, berriz, 24 orduko aurrerapenarekin, gutxienez.
Interpretazio-saioa behar bezala egiteko materiala ere bidaliko dio Udalak enpresari, ahalik eta aurrerapen handienarekin: gai-zerrenda, bertako puntuei dagokien dokumentazioa…

2. PREZIO UNITARIOA

Interpretazio zerbitzuaren prezioa (ordu eta erditik beherako iraupena duten batzordeetarako): 373€ gehi %21eko BEZ. Beti ere, ordu laurdeneko malgutasunarekin. Hilabetero hiruzpalau batzorde izango direnez, tarte hori bata bestearekin konpentsatuko da. Eta batzorde edo bilkuraren iraupena, ordu eta erditik gorakoa denean, 447€ gehi %21.

Udalak, batzorde edo bilkura hitzorduak aurretiaz finkatuko ditu eta batzorde deialdia, lizitatzaileari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik eteten bada, saioaren aurretiazko prestakuntza zerbitzua konpentsatzeko prezioa 100 €+ % 21 BEZ izango da.
Interpretea, saiora bertaratzen bada baina interpretazio zerbitzua bertan behera gelditzen bada, zerbitzua ordainduko da (ordu eta erditik beherako iraupena duten batzorde bezala).

Enpresa esleipendunak hilaren hasieran aurkeztuko du aurreko hilean egindakoaren faktura. Bertan, interpretazio-saioak jasoko dira: non eta noiz izan diren, eta iraupena.

3. PROPOSAMEN TEKNIKOAREN EDUKIA

Kontratura atxikitako interprete titular eta ordezkoen lantaldeko kideen zerrenda aurkeztu behar du enpresak. Era berean, Udalarekin mintzakide ariko den edo kudeatzaile-lana egingo duen pertsona izendatu beharko du adjudikaziodunak, zalantzak argitzeko eta Udaletik bidalitako lanen kontu emateko.

Lantaldeko kidetzat hartuko dira, bakar-bakarrik, enpresa adjudikaziodunak eskaintzan aurkeztutako zerrendan izendatutako interpreteak. Udalak interprete horiek bakarrik hartuko ditu talde horretako kidetzat, eta, kontratuak

Sinatzaile / Firmante: MAITE GUERENABARRENA URRIOLABEITIA Data: 2022-02-14 10:02:12(UTC) Fecha: 14/02/2022 10:02:12 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA - AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2022-02-14 11:20:28(UTC) Fecha: 14/02/2022 11:20:28 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (0d7d106b-e02e-4e10-a3cd-0e08d7dc95ee) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

dirauen bitartean, enpresak ezingo du taldearen osaera aldatu Udalaren baimenik gabe.Interprete bakoitzaren ezaugarrien fitxa bat aurkeztuko da.
Enpresa esleipendunak zuzenean baliatuko ditu bere ardurapean dauden pertsonek lana antolatzeko eta zuzentzeko dituzten ahalmenak, bai eta lan-arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dauden xedapenak betetzea ere.

Berrizko Udalak ez du antolaketa- edo zuzendaritza-ahalmenik izango enpresa esleipendunarentzat lan egiten duten pertsonei dagokienez, eta ez du inolako harreman juridiko, laboral, zibil edo administratiborik izango haiekin. Enpresa esleipendunak bere gain hartuko ditu enpresa-jarduerari dagozkion arriskuak, betebeharrak eta erantzukizunak. Horrela, esleipendunarekin modu iraunkorrean edo aldi baterako lan egiten duten pertsona guztiak enpresaren erantzukizun zuzena izango dira, eta funtzionalki eta organikoki enpresaren mende egongo dira. Beraz, ez dute inolako lan harremanik izango Berrizko Udalarekin; eta esleipendunak bere gain hartu beharko ditu pertsona horiei buruz indarrean dagoen araudiak dakartzan kostu sozial, laboral eta fiskal guztiak. Berrizko Udalak ez du inolako erantzukizunik izango. Hirugarrengoei edo entitateei eragindako kalteak, enpresa esleipendun edo bere ordezkaritzan emandako zerbitzuek eragindakoak badira, ez dira Berrizko Udalaren erantzukizuna izango.

4. KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALAK BABESTEKO LEGE ORGANIKOA

Interpretatzeko bidaliko diren dokumentu guztiak konfidentzialak dira, eta, beraz, sekretu profesionalez jardun beharko dute interpreteek eta enpresa adjudikaziodunak.Hori dela eta, enpresak ezingo ditu kontratatutako lanetako datuak edo informazioa bere onurarako erabili, ezta inori laga ere, Berrizko Udalaren idatzizko baimenik gabe. Horrenbestez, adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta alor horretako gainerako araudia betetzeko.

5. KONTRATUAREN ZENBATEKOA

Kontratuaren prezioa 11.157,02 € gehi 2.342,97 € (% 21eko BEZ) izango da. Lehiatzaileek diru-kopuru hori hobetu dezakete.

6. KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Enpresa lizitatzaileek agiri honetan azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urtean finkatutako balioetako bat eta erdi egiaztatu beharko dute, gutxienez.

7. KAUDIMEN TEKNIKO ETA PROFESIONALA

Enpresa lizitatzaileek egiaztatu beharko dute azken hiru urteetako negozio-bolumen handienekoan, kontratatu nahi direnen pareko edo antzeko lanak egin dituztela. Horretarako, urte horretan egindako lan edo emandako zerbitzu garrantzitsuenen zerrenda aurkeztu beharko dute.

Sinatzaile / Firmante: MAITE GUERENABARRENA URRIOLABEITIA Data: 2022-02-14 10:02:12(UTC) Fecha: 14/02/2022 10:02:12 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA - AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2022-02-14 11:20:28(UTC) Fecha: 14/02/2022 11:20:28 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (0d7d106b-e02e-4e10-a3cd-0e08d7dc95ee) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

8. KONTRATUAREN INDARRALDIA

Kontratua indarrean egongo da 2022ko abenduaren 31ra arte. Hortik aurrera, urteka luzatu ahalko du Udalak, 3 urteko gehienezko mugarekin.

9. EXEKUZIO-BALDINTZA BEREZIAK

Enpresa adjudikaziodunak hizkera ez-sexista eta inklusiboa erabili beharko du interpretazio guztietan. Bestalde, interprete taldearen osaera parekidea dela bermatu beharko du, eta, hortaz, lanen % 50, gutxienez, emakumeen ardurapean utziko dela.

10. - KONTRATUA ESLEITZEKO PROZEDURA

Kontratua prozedura ireki bidez esleituko da.

11. KONTRATUA ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Lizitazioan, gehienez ere, 100 puntu lortu ahalko dira.

Hona hemen eskaintzak baloratu eta kontratua esleitzeko oinarritzat hartuko diren balorazio irizpideak eta horiei emandako haztapena:

- Eskainitako prezioa: % 60
- Proposatutako baliabide teknikoak: % 5
- Proposatutako interprete-taldearen antolaketa, kideen prestakuntza eta esperientzia: %25
- Interprete lanak egiteko prestutasuna eta epeak. Zerbitzu kalitatea bermatzeko neurriak: % 10.

<u>Balio-irizpen baten menpe dauden balorazio irizpideak.</u>

Guztira: 40 puntu

- Proposatutako interprete-taldearen antolaketa, eta kideen prestakuntza eta esperientzia profesionala baloratuko dira: 25 puntu emango zaizkio kontzeptu horri.

Kontratu honetarako, proposatutako interpreteek duten esperientzia profesionala baloratuko da; batez ere, zuzenbide eta administrazio arlokoak.

- Interpreteen ekipoa antolatzeko proposamena, zerbitzuaren kalitatea bermatzeko. Premiazko beharrizanei erantzuteko gaitasuna. 10 puntu.
- Proposatutako baliabide teknikoak. 5 puntu.

Baloratuko da enpresa lizitatzaileek izan ditzaketen baliabide teknikoak, eta horien kalitatea.

<u>Automatikoki baloratu daitezkeen irizpideak.</u>

Prezioa. 60 puntu.

Berrizen, 2022ko otsailaren 14an

Euskara teknikaria

Maite Guerenabarrena Urriolabeitia

Sinatzaile / Firmante: MAITE GUERENABARRENA URRIOLABEITIA Data: 2022-02-14 10:02:12(UTC) Fecha: 14/02/2022 10:02:12 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA - AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2022-02-14 11:20:28(UTC) Fecha: 14/02/2022 11:20:28 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (0d7d106>-e02e-4e10-a3cd-0e08d7dc95ee). Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Eranskina

Interpretearen fitxa					Zk.
Izen-deiturak					
IFZ /		Tel.		**e-posta** l	
Enpresa lizitatzailea					
Enpresa lizitatzailearekiko harremana					

Europako Hizkuntzen Erreferentzia Markoa

Hizkuntza gaitasunak

Hizkuntza	B1	B2	C1	C2

Interpretazio hizkuntzak

Sorburu hizkuntza	**Xede hizkuntza**

Titulazio akademikoak	
Hizkuntzen titulazioak	
Interpretazioaren alorreko esperientzia profesionala (bereziki Administrazioa)	

Goian aipatutako enpresarekin lan egiteko adostasuna agertzen dut, Berrizko Udalak zabaldu duen kontratazio xedearekin.	Sinadura

Sinatzaile / Firmante: MAITE GURENABARRENA URRIOLABEITIA Data: 2022-02-14 10:02:12(UTC) Fecha: 14/02/2022 10:02:12 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA - AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2022-02-14 11:20:28(UTC) Fecha: 14/02/2022 11:20:28 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (0d7d106b-e02e-4e10-a3cd-0e08d7dc95ee) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Sinatzaile / Firmante: MAITE GURENABARRENA URRIOLABEITIA Data: 2022-02-14 10:02:12(UTC) Fecha: 14/02/2022 10:02:12 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA - AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2022-02-14 11:20:28(UTC) Fecha: 14/02/2022 11:20:28 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {0d7d106b-e02e-4e10-a3cd-0e08d7dc95ee} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.